

ANAIA BI

Behin batean, ez hain aspaldi eta ez hain urrun, baserri batean jaio ziren anaia bi. Elkarri eskua emanda jaio ere, banatu nahiko ez balute bezala. Bikiak ziren. Berdin-berdinak. Horregatik, erditzean sorgin-lanak egin zituen amonak, hari-mutur bat hartuta begiztaz lotu zuen anaïetako baten eskuin oineko behatz potzoloa, esanaz:

—Zu zara Tomax, etxe honetako premua. Eta zu, berriz, Xamot, etxe honetako kadeta.

Bi anaiek, jakina, ez zuten ulertzen amonaren jarduna. Gerora jakingo zuten, handitzean Tomaxek baserrian gelditu beharko zuela, eta Xamotek baserritik alde egin beharko zuela bizimodua eraren batera ateratzeko. Lege zaharra baitzen gurean, baserria eta haren lurak banaezinak zirela, eta, oinordekoa, anaia nagusia zela haien jabe bakarra.

Tomax eta Xamot, Xamot eta Tomax banaezinak ziren, adiskide minenak baino minagoak. Eta igual-igual jarraitzen zuten. Batek lurrera erorita kopeta irekitzen bazuen, hurrengo egunean besteak zauri bera egiten zuen, orbain berdin-berdina. Ispiluak berak ere ez lituzke ezberdinduko.

Horregatik, jaiotzean Tomaxi behatz potzoloan ipinitako begizta behin-behineko aterabidea baino ez zenez, anaia bakoitzak lepotik behera zeraman zilarrezko katea dominatxo batekin, kutun gisa, bakoitzaren izenarekin. Amonak bazekien, baina, gaur-ni-zu-naiz-eta-zu-ni-zara ibiltzen zirela bikiak, zilarrezko lepokoak elkarri trukutzen. Eta horrela ezinezkoa zen nor zen zein eta zein zen nor jakitea.

Hamar bat urte izango zituzten, udaberria zen batean, sagarrondoak loratzen eta sagastiak zuriz jantzita baitzeuden, eta lurra txikoria-belarrez josia, xuri-hori berdean.

—Inoiz baino indartsuago egingo diagu putz —esan zuten lore bana eskuetan hartuta—. Bat, bi eta hiru!

Eta ufa egin zuten eta lore bitxi haien luma antzekoak airean atera ziren, eta une berean altxatu zen haize-zirimolak eraman zituen oraindik gorago, gora eta gora. Bi anaïak korrika atera ziren lumatxen atzetik, iji eta aja. Hura baitzuten jolasa: elur-luma haiei jarraitzea. Eta haizea gelditu zenean, kulunkan-kulunkan pausatu ziren errekaen erdian eta eraman zituen urak.

—Amona, amona, nora doa erreka?

—Itsasora.

—Zer da itsasoa, amona?

—Munduan ez dago hitzik hura zer den adieraz dezakeenik, norberaren begiekin ikusi behar da. Hain da... ikusgarria. Munduko putzurik sakonena eta zabalena da.

Une batez isil-isilik gelditu ziren bikiak, baina berehala...

—Noiz ikusiko dugu itsasoa? —galdetu zuten batera.

—Aurki, sagardo-upelak hartuta kostaldera joatean. Eta kito! —amonak, bazekien-eta hura eteten ez bazuen galdeketak ez zuela amaierarik izango—. Lan handia dugu oraindik.

Gogoan zuten bikiek, bai, nola aritu ziren udazkenean dipiti-dapata sagarra jotzen, helduak zokor-mazoekin bezala haiek sunpilekin sagarra zanpatzen. Baita inguruko baten

baten behatzen bat ere, baina inori begia ateratzea baino hobeagoa zen hori. Horregatik ez zieten kizkiekin sagarrak biltzen utzi.

Bikiek sagardoa prest egotea baino ez zuten nahi, itsasora joateko, jakina. Eta amonari behin eta berriz galdetzen zioten noiz gertatuko zen hori. Eta iritsi zen eguna, eta...

—Haraaaaaa —baino ezin esan izan zuten hura ikustean.

Maitemindu ziren itsasoarekin.

Eta urteekin iritsi zen eguna Tomaxek baserrian gelditu eta Xamotek baserriatik alde egin behar zuena. Besarkatu ziren bikiak eta betiko agur esan elkarri. Beraiek baino ez zekiten betirako ez zela. Jarraituko zutela, txikitan bezala, gaur-ni-zu-naiz-eta-zu-ni-zarara jostatzen. Eta horregatik, Xamotek, partitu eta urtera, zazpi itsasoak ez ezik ozeano eta kontinenteetako itsasertzak ikusita baserrira bueltatu zenean, esan zion anaiari:

—Hire txanda —eta trukatu zituzten lepoko kutunak.

Eta aurrean izan zuenean, bizipen hori ordurako bizi izan zuela sentitu zuen Tomaxek itsasoari begira. Jada hori aurrez bizi izandakoa zela. Jakina, esango duzue, hamar bat urte zituenean amonak sagardo-upelak gurdian hartuta eraman zituenekoa gogoratzen duelako Tomaxek. Ba... bai eta ez.

Itsas haizearen ukitua aurpegian, kresalaren usaina sudur-mintzetan eta begi aurrean zuen handitasunak zein txiki egiten zuen jakiteak eragin zion zirrara ezaguna zuen, bai. Badakizue zergatik?

Idi-parea hartuta alorra goldatzen zuenean atzean utzitako ildoak itsasontziek sortutako ubera bezalakoa zelako, uretan utzitako bitsezko arrastoa.

Galsoro berdean haizeak jostatzean sortzen zituen uhinak olatuak zirelako, altxatzen zirenak alde batetik bestera. Eta haizerik ez zenean soroak laño dagoen itsasoa zirudielako, bare eta laua.

Garia larrinean jotzen zutenean, lastoa eta alea bereizteko, narra gainean mandoari bere kasa joaten uzten zionean jitoan bezala zihoalako uraren eta haizearen nahieran.

Belar moztu berriaren usaina maite zuelako.

Gau beltzetan arrain-sardek uretan sortzen zuten ardoraren argitasunak sagastiko lurrean zeuden sagarren dir-dirra zekarkiolako gogora edo gari-aletxoaren urrezkoa.

Ur-zabaldi hura lur-soro handia zelako. Biak zaindu eta landuz gero oparo eta eskuzabal eskaintzen zirenak, dela fruitu, dela arrain. Zeken ere porta zitezkeenak, behar ez bezalako tratua jasota. Ez zirelako inorenak, haiek lantzeak ez zuelako haien gaineko jabetza-eskubiderik ematen. Maitatu behar zirelako, eta errespetatu eta zaindu. Hori eginda, biek utziko ziotelako beren magaletik altxorrak hartzen, baina behar zituenak bakarrik hartzeko, eta ez gehiago, bestela bere kalterako izango zelako, ondorengoak esku-hutsik utziko bailituzke horrela.

Urteak egin zituzten bikiek lepokoak elkarri trukatzeko, baserrian anaia bat eta itsasoan bestea eta lepokoak trukatu eta anaia bat itsasoan eta bestea baserrian. Baina batean gertatu zen itsasoan zebilen anaia ez zela bueltatu. Ez galdetu zein zen, haiek ere ez baitzekiten, hainbestetan trukatu zituzten lepokoak, katetik zintzilik zeramaten dominan agertzen zen izena ez zekitelako norena zen.

Kezkatuta, baserrian gelditu zen anaia kostaldera jaitsi zen berri bila, gurdian

sagardo-upelak hartuta. Eta sagardoa saldu ostean bueltatu zen baserrira berririk gabe, baina bisigu bat afaltzeko erosita. Ezkatak kendu zizkion lehendabizi eta, zakatzetatik hartu eta erraiak kentzeko aitzoaz zabaldu zuenean, hor ikusi zuen diz-diz egiten bere kolkoan zeraman dominatxoaren bikia.

Batzuetan lurra eta itsasoa ondo zainduta ere gaizto porta daitezkeelako, dela sikate, dela enbata, negar-malko bat irristatu zitzaion masailetik lepoko katea kentzen zuen bitartean. Eta bere anaiak kolkoan eramandako dominatxoa hartu eta ipini zuen berak zeramanaren ondoan eta berriro lotu zuen katea lepoan.

Baserriko atarira atera eta txikoria-belarrak ikusi zituen belardian ñir-ñir, hartu zuen bat esku artean eta putz egin zion, eta lorearen elur-lumak gora eta gora hasi ziren hegaldatzen eta bihotz ondoan zeramatzan dominatxoak hasi ziren saltoka dindilin-dandalan.

Lizun